



2. dokumentua Preskripzio Tekniko Partikularren Agiria

GERNIKAKO HORNIKUNTZA-SISTEMAREN SISTEMA ELEKTRIKOA ETA KONTROL-SISTEMA BERRITZEA, EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «AZPIEGITUREN ARAZKETA-, SANEAMENDU-, EFIZIENTZIA-, AURREZPEN-, BERRERABILPEN- ETA SEGURTASUN-JARDUKETAK (ASEAB) GAUZATZEA» 1 (C5.I1) INBERTSIOAREN ESPARRUAN

AURKIBIDEA

1. XEDEA	2
2. DESKRIBAPEN OROKORRA.....	2
3. IRISMENA	2
4. DOKUMENTAZIOA	2
4.1 ANTOLAKETAKO DOKUMENTUAK.....	2
4.2 HONDAKINEN KUDEAKETAKO DOKUMENTUAK.	3
4.3 DOKUMENTAZIO PARTIKULARRA	3
5. PROIEKTUAREN AKATSAK	4
5.1 KONTRAESANAK, OMISIOAK EDO HUTSEGITEAK DOKUMENTAZIOAN.	4
5.2 XEHETASUNEZKO PLANO OSAGARRIAK.	4
6. KALITATE-KONTROLA, IKUSKAPENAK, PROBAK.....	5
7. LIZITATZAILEEN GUTXIENENKO BALDINTZAK	5
8. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK.....	5
8.1 GIZA BALIABIDEAK	5
8.2 BALIABIDE MATERIALAK.....	7
8.3 HORNIDURAK	8
8.4 BITARTEKO OSAGARRIAK	8
8.5 PROZEDURAK	8
8.6 LANEN KOORDINAZIOA.....	9
8.7 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA	9
8.8 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA	10
8.9 INGURUMENA.....	10
8.10 KALITATEA ZIURTATZEA.....	10
9. NEURKETAK ETA AURREKONTUA	11



1. XEDEA

Preskripzio Tekniko Partikularren Agiri honen xedea hauxe da: **Gernikako hornikuntza-sistemaren sistema elektrikoa eta kontrol-sistema berritzeko (Next Generation)** obren kontratazioaren baldintzak zehaztea.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

Preskripzioen agiri honen xedea da materialak hornitzeko, muntaketa lanak egiteko, probak egiteko eta instalazio berriak zerbitzuan jartzeko zein Saneamendu Sareen SCADAn integratzeko kontratua gidatu behar duten oinarrizko baldintza teknikoak finkatzea.

3. IRISMENA

Obra honen irismena preskripzio tekniko partikularren agiri honekin batera atxikitako I. ERANSKINEAN jasotako proiektuan dago deskribatuta.

4. DOKUMENTAZIOA

4.1 ANTOLAKETAKO DOKUMENTUAK.

Kontratatik, obra hasi aurretik, proiektuan sartutako lan guztien segidaren eta garapenaren plangintza xehatua emango dio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, non lan partzial guzti-guztiak definitu eta behar bezala planifikatu eta programatuko diren. Emaizta egutegi batean islatuko da, bai lanen hasiera eta amaiera adieraziz, bai eta obraren hasiera eta amaiera ere. Era berean, obra hasi aurreko jarduerak nola prestatu eta gauzatuko diren azalduko da. Kontratataren lanek prozesuko lana edo «beste» lan batzuk oztopatzen badituzte, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren baimenaren zain geratu beharko du lanok egiteko. Are, lanok eten ere egin ahal izango dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak bere beharrengatik horrela erabakitzen badu. Era berean, kontratatik lan eremua hustu eta muntaketa-lanetako materiala lekuz aldatu beharko du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskatzen dionean.

Langileen kudeaketari eta koordinazioari buruzko txosten xehatu bat emango zaio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, lan partzial bakoitzaren kasuan, bertan diharduten langileak zehaztuz (gainbegiraleak, ofizialak, laguntzaileak...). Txostenak aurkeztutako programazioarekin eta plangintzarekin lotuta egon beharko du. Lan-ekipoen antolaketa eta kudeaketa ere zehaztu beharko dira (tresnak, kontsumigarriak, garraioa...).



4.2 HONDAKINEN KUDEAKETAKO DOKUMENTUAK.

Adjudikazioduna arduratuko da lanak egitean sortutako hondakin guztiak behar bezala kudeatzeaz. Sortutako hondakinak indarreko legeriaren arabera kudeatu beharko dira, eta prebentzioari, berrerabilpenari eta birziklatzeari lehentasuna emango dieten neurriak hartuko dira, hondakinak behar bezala bereiziz, biltegitratuz eta kudeatuz.

Kontratistak hondakinak kudeatzeko plan bat aurkeztuko du. Plan horretan, zer hondakin sortzea aurreikusten den adieraziko da, Europako Hondakinen Zerrendako dagokion kodea zehaztuta, bai eta aurreikusitako prebentzio-, balorizazio- eta/edo ezabatze-neurriak ere. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak jatorrian nahitaez bereizteko neurriak ere adieraziko dira, balorazioa errazteko. Era berean, hondakinak kudeatzeko instalazioen planoak jasoko dira. Lanak hasi aurretik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onartu beharko du hondakinak kudeatzeko plana.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak beretzat gordetzen du adjudikaziodunari zenbait hondakin nahi duen lekuan biltegitratzea eskatzeko eskubidea, etorkizunean berrerabiltzeko aukera izateko.

Kontratista arduratu beharko da egindako hondakinen lekualdaketa guztien dokumentu-kudeaketa integralaz. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren IKS-eeM ingurumen-informazioaren kudeaketa integralerako sistema erabiliko du, eta berariaz aipatuko ditu obrari egotz dakizkikeen kopuruak. Gainera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarentzat eginiko jarduerarekin lotuta kudeatutako hondakinen erregistro eguneratua eduki beharko du.

Obra amaitzean, adjudikaziodunak hondakinak kudeatzean sortutako dokumentazio eta erregistro guztien kopia emango dio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, eta, hala badagokio, ekipok eta materialak obran birziklatu edo berrerabili direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

4.3 DOKUMENTAZIO PARTIKULARRA

Kontratistak zehaztasunezko ingeniari-tza egin beharko du, eta proiektuan eskatzen den dokumentazio guztia entregatu beharko du.

Gainera, adjudikaziodunak honako agiri hauek entregatu beharko ditu gutxienez:

- «As Built» planoak.
- Erabilitako materialen kalitate-ziurtagiriak (CE marka, saiakuntzak, eta abar).
- Hornitutako ekipoen egiaztapen-ziurtagiriak.



- Administrazio-klausula partikularren agirian jasotako puntuetan eskatutako dokumentazioa.
- Instalazioaren legalizazioaren dokumentazioa.

Dokumentazio horrek kontratuaren partida guztiak hartuko ditu barne, eta formatu digitalean entregatuko da –planoak Autocad (dwg) eta EPLAN formatuetan, dokumentazio idatzia Office-Word eta Access formatuetan–.

Instalazioak sortutako dokumentazio guztiak, baldin eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan egun dauden instalazioak aldatzea badakar, kontratistaren dokumentazioaz gain, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren esku dauden planoen, zerrenden, txostenen eta abarren berrikuspena eragingo du nahitaez. Kontratatik bere kontu prestatu beharko du dokumentazioaren eguneratzea.

Kontratua ez da amaituko, harik eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu eta kontratuaren zuzendariak onartu arte.

5. PROIEKTUAREN AKATSAK

5.1 KONTRAESANAK, OMISIOAK EDO HUTSEGITEAK DOKUMENTAZIOAN.

Agirietan aipatu eta planoetan jaso gabe geratutakoa —edo alderantziz—, dokumentu guztietan jasota balego bezala exekutatu beharko da.

Proiektuaren planoen eta preskripzioen agirien artean kontraesanik badago, azken horietan jasotakoa nagusituko da.

Planoetan eta preskripzioen agirietan egindako omisioek edo obraren xehetasunen deskribapen okerrekin, baldin eta planoetan eta preskripzioen agirietan jasotakoaren espiritua edo asmoa gauzatzeko ezinbestekoak badira argi eta garbi, edo usadio-ohituragatik egin beharrekoak badira, ez dute inolaz ere salbuesten kontratista aipatu gabeko edo oker deskribatutako xehetasunak gauzatzeko betebeharretik; aitzitik, xehetasun guztiz eta behar bezala zehaztu balira bezala egin beharko dira.

5.2 XEHETASUNEZKO PLANO OSAGARRIAK.

Kontratistaren ardura izango da obrak behar bezala egiteko behar diren xehetasunezko plano osagarri guztiak egitea. Plano horiek gutxienez hamabost (15) laneguneko aurrerapenarekin aurkeztuko zaizkio obra-zuzendaritzari, onartzeko eta/edo beharrezko iruzkinak egiteko. Salbuespena administrazio-klausula partikularren agirian jasotako mugarrietan adierazitakoa izango da, zeina berdin-berdin bete beharko baita.



6. KALITATE-KONTROLA, IKUSKAPENAK, PROBAK

Hornitzaileak kalitate-programa xehatu bat egin beharko du, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergok onartu beharko duena.

Proiektuan adierazitako ikuskapenak, saiakuntzak eta probak egin beharko dira.

Kalitate-dokumentazioa proiektuan eskatutakoa izango da.

7. LIZITATZAILEEN GUTXIENKO BALDINTZAK

Honako egiaztagiri hauek izan beharko dituzte (azpikontratazio-irizpideak errespetatuz):

- Instalazio-lanak egiteko, enpresa instalatzaile elektriko bat eduki behar dute, *behe-tentsioko instalatzaile* gisa erregistratua, *datuak ikuskatzeko, kontrolatzeko eta eskuratzeko sistemen espezialista kategorian*.
- Programazio-enpresa bat ere eduki behar dute, **Wonderware-ren «ArchestrA integratzaile ziurtatua»** egiaztagiria duena.

8. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratistaren antolamendu-egiturak behar beste baliabide izango ditu kontratua behar bezala kudeatzeko eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari lanak egiaztatzen eta emaitzak kontrolatzen laguntzeko.

8.1 GIZA BALIABIDEAK

Proposatutako profilak atal honetan eskatutakora egokitzen diren baloratuko da.

Obrako burua.

- Unibertsitate-prestakuntza teknikoa (ingeniaritza edo antzekoa).
- Hiru urteko esperientzia kontratu honen xedearen izaera bereko proiektuen eta obren zuzendaritzan (obrak ongi egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira).
- Prebentzioa. Ezinbestekoa da laneko arriskuen prebentzioari buruzko oinarriko prestakuntza izatea eta langileen prebentzio-baliabideetako bat izateko gaituta egotea.
- Arrisku elektrikoarekin lotutako 614/2001 Errege Dekretua. Kualifikatuta egon behar du. Lizitatzaillearen aldetik behe-tentsioko edozein lan egiteko gaituta egon behar du, baita tentsioko lanetarako ere. Ikus beheko laukia.



CUADRO 1
CUADRO RESUMEN DE LA FORMACIÓN/CAPACITACIÓN MÍNIMA
DE LOS TRABAJADORES

	Trabajos sin tensión		Trabajos en tensión		Maniobras, mediciones, ensayos y verificaciones		Trabajos en proximidad	
	Supresión y reposición de la tensión	Ejecución de trabajos sin tensión	Realización	Reponer fusibles	Mediciones, ensayos y verificaciones	Maniobras locales	Preparación	Realización
BAJA TENSION	A	T	C	A	A	A	A	T
ALTA TENSION	C	T	C + AE (con vigilancia de un jefe de trabajo)	C (a distancia)	C o C auxiliado por A	A	C	A o T vigilado por A
T = CUALQUIER TRABAJADOR A = AUTORIZADO C = CUALIFICADO C + AE = CUALIFICADO Y AUTORIZADO POR ESCRITO				1.-Los trabajos con riesgos eléctricos en AT no podrán ser realizados por trabajadores de una Empresa de Trabajo Temporal (RD 616/1999). 2.-La realización de las distintas actividades contempladas se harán según lo establecido en las disposiciones del presente Real Decreto.				

Programatzailea/integratzailea

- Obraren izaerarekin eta muntarekin bateragarriak diren prestakuntza eta esperientzia izan behar ditu. Emandako softwarean esperientzia eta ezagutzak dituela egiaztatu behar du. Lizitazioan zehaztutako softwarean azken bost urteetan hiru urtetik gorako esperientzia egiaztatu behar du, bai eta egin beharrekoaren izaera bereko lanetan programatzaile gisa egindako lanen erreferentziak aurkeztu ere. «System Plattform», «Intouch» eta «Historian» azterketak gainditu izanaren ziurtagiria duen teknikaria izan behar du (Wonderware ziurtagiria).

Gainontzeko langileak

Giza baliabide espezializatuak, kopuru eta kualifikazio nahikoarekin, kontratua kontratuan jasotako baldintzetan beteko dela bermatzeko:

Lizitatzailleak obran erabiliko dituen giza baliabideen organigrama xehatua jaso behar du aurkeztutako eskaintzan.

Beste betekizun batzuk

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetan lan egiten duten langile guztiek lanok egiteko behar den konpetentzia profesionala eta prestakuntza-maila izango dute, eta kontratistaren ardura izango da bere ekipoak kontratatutako zerbitzuen xedera egokitzea.

Langile guztiek portaera egokia izan beharko dute, behar bezala unformatuta, txukun eta behar bezala identifikatuta izan behar dira une oro —identifikazio-txartel pertsonala ageriko leku batean eramango dute—.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak beretzat gordetzen du langileak ordezkatu ditzaten eskatzeko eskubidea, baldin eta ez badituzte aipatutako eskakizunak betetzen, edo ez badute agindutako



lanerako behar besteko gaitasunik eta trebetasunik erakusten, kontratuaren zuzendaritzaren iritziz.

8.2 BALIABIDE MATERIALAK

- Lanak egiteko beharrezko tresnak eta egiaztatagailuak, dagokion ziurtagiri homologatu eta guzti.
- Kontratu honen xede diren lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren erremintak, makinak, eta era guztietako ibilgailuak, norbera eta taldea babesteko ekipamenduak eta beste.
- Espezialitateko konponketak egiteko tailerrak.
- Bulego eta aldagela propioak edo alokatuak, kontratua betetzeko behar diren giza baliabideen kopuruarekin bat datozenak (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ez du lokalik emango langileen bulego, aldagela, komun eta abarretarako, ezta erremintak, makinak eta ibilgailuak gordetzeko ere, eta adjudikaziodunaren kontura izango dira arrazoi horiengatik sortzen diren gastu guztiak).

Lanen iraupenaren arabera, oro har eta instalazioan toki nahikorik badago, adjudikaziodunak bere kontura, eta kontratuaren zuzendariaren nahitaezko onespenez ostean, instalatuko ditu kontratatutako lanak normaltasunez egiteko behar diren etxolak, higiene-zerbitzuak, biltegi txiki bat eta material-bilketak. Adjudikazioduna izango da eremu horietan ordena eta garbitasuna mantentzeko arduradun bakarra. Eremu horiek egunero txukundu beharko dituzte lanaldia amaitzean. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskubidea izango du, zabarkeriarik antzemanaz gero, eremu horiek garbitzeko hirugarren bat kontratatzeko, eta adjudikaziodunaren kontura joango da zerbitzuaren kostua.

Adjudikaziodunaren kontura joango dira honako lan hauek eragindako gastuak: lursaila egokitzea; instalazioak ezartzea, kentzea eta lekuz aldatzea; obra osagarriak eraistea, eta okupatutako azalerak egokitu eta garbitzea jatorrizko itxura berreskuratzeko. Lan horiek kontratuaren zuzendariaren adostasuna lortu beharko dute kontratua bukatutzat jo dadin.

Adjudikaziodunaren ibilgailuak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetan aparkatzeko, betiere horretarako lekua badago, kontratuaren zuzendariak eman beharko du baimena, eta aparkatzea adjudikaziodunaren langileak instalazioan dauden bitartean baino ez da egongo baimenduta.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ez du bere gain hartzen adjudikaziodunaren bitarteko lagungarriek jasan ditzaketen lapurreten edo kalteen erantzukizunik. Horrenbestez, egokitzat jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu lanak amaitu arte ekipoen segurtasuna bermatzeko.

8.3 HORNIDURAK

Kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren hornidurak, erregaiak, komunikazioak eta beste adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Oro har eta kontratuaren zuzendariak baimen espresurik eman ezean, adjudikaziodunak ezin izango ditu erabili Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetako energia-iturriak (elektrikoa barne). Horrenbestez, **bitarteko propioak erabiliz lortuko du kontratatutako lanak exekutatze behar duen energia elektrikoa** –horretarako beharrezko legezko dokumentazioa izan beharko du–.

Ura hartzeko aukera izango du zehazten zaion tokian, eta saneamendu-sarerako lotunea ere izango du (beharrezkoa bada); adjudikaziodunaren ardura izango da langunerainoko edo langunetiko uraren banaketa- eta saneamendu-sarea. Indarrean dauden erregelamenduak eta dagozkien segurtasun-arauak betez egingo dira biak, eta kontratuaren zuzendariaren oniritzia izango dute.

8.4 BITARTEKO OSAGARRIAK

Enpresa adjudikaziodunak behar beste baliabide osagarri, aldamio, garabi, plataforma, ekipo elektrogeno eta abar hornitzeko betebeharra du.

Bitarteko osagarrien, aldamioen, garabien, plataformen, ekipo elektrogenoen eta abarren prezioak modu proportzionalen jasotzen dira unitateko prezioetan, eta, ondorioz, ez dira bereizita ordainduko.

Nahiz eta kontratatutako hornidura eta muntaketa gertatu, instalazioaren diseinu eta funtzionamendu parametroak bere osotasunean erregistratu eta preskripzioen agiri honen xede den aktibo bakoitzaren funtzionamendua egiaztatu, kontratua ez da amaitutzat joko preskripzioen agiri honetan eskatutako dokumentazio guztia entregatu bitartean.

8.5 PROZEDURAK

Enpresa adjudikaziodunak bere kontura eta bere bitartekoak erabiliz eramango ditu Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetara kontratuaren xede diren lan guztiak egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak.



Enpresa adjudikaziodunak onartu egingo ditu kontratuaren zuzendariak gorabeherak, akatsak, matxurak, urgentzia- eta/edo larrialdi-egoerak eta beste jakinarazteko ezarritako prozedurak.

8.6 LANEN KOORDINAZIOA

Adjudikaziodunari dagokio preskripzioen agiri honen xede diren lanak koordinatzea espezialitate bakoitzeko langileekin, bai eta zerbitzu osagarriak ematen dituzten enpresetako langileekin ere.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontratatzen dituen enpresek zerbitzuak era sinergikoan eta koordinatuan ematea sustatu eta erraztuko du.

Adjudikaziodunaren lanak prozesuko lana edo aldi berean egiten diren «bestelako» lanak oztopatzen dituenen, kontratuaren zuzendaritzak baimena ematean baino ez dira hasiko lanak.

8.7 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratuaren zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol neurriak ezarri ahal izango ditu, kontratuaren baldintzak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, bai eta egindako lanen maila teknikoa egiaztatzeko ere. Egokitzen jotzen dituen ausazko ikuskapenak ere egin ahal izango ditu.

Kontratuaren zuzendaritzak eskatzen duenean, enpresa adjudikazioduneko teknikariek presente egon beharko dute lan garrantzitsuak egiten diren bitartean.

Hilero, kontratista adjudikaziodunak egindako lanak ZENBATETSI ETA ZERRENDATU egingo ditu, eta zerrenda hori izango da ondoren ziurtagiri bat egiteko oinarria. Kontratatik eskaintako prezioaren % 20 atxikiko da funtzionamendua egiaztatzeko softwarea edo datuen eta seinaleen karga behar duten partidetan. Partida horiek osorik ordainduko dira behin kontrol-probak gainditu eta lanek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu ondoren.

Etorkizunerako lanon definizioa egokitzeko, adjudikaziodunak lanok egin bitartean gertatzen diren gorabehera, arazo eta abarren analisi sakona egingo du.

Analisiak, gutxienez, honako atal hauek izango ditu:

- Gertatutako gorabeheren erregistro xehatua.
- Gertatutako gorabeheren alderdi garrantzitsuen azterketa.
- Gertatutako gorabeherak konpontzeko proposamena.

Atal horiek HILEKO TXOSTEN batean jasoko dira, kontratuaren zuzendaritzari bidaliko zaiona.



8.8 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek aplikatu beharreko laneko arriskuen prebentzioko legeak, arauak eta erregelamenduak oso-osorik beteko dituzte une oro.

Kontratatari dagokio laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak antolatzea, bere jarduera propioak ez ezik, azpikontrataturako enpresenak ere bai.

Adjudikaziodunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Laneko Arriskuen Prebentziorako Sailaren kondizio guztiak bete beharko ditu, II. ERANSKINEAN zehaztu bezala (ENPRESA KONTRATISTEK EGINDAKO LANETAN LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO PROZEDURA OROKORRA).

Prebentzio-jarduera guztiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko prebentzio-zerbitzuek baliozkotu beharko dituzte.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

8.9 INGURUMENA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ingurumen-arauak bete behar dira (ikus III. ERANSKINA).

8.9.1 GARBIKETA ETA HONDAKINAK

Enpresa adjudikaziodunak garbiketa-egoera onargarrian mantendu beharko ditu kontratu honen xede diren lanak egiteko erabiltzen dituen instalazioak edo esparruak.

Adjudikaziodunaren ardura da bere lanak egin bitartean sortutako hondakin guztiak kudeatzea, eta berariaz debekatuta dago hondakinak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetan ezabatzea edo biltzea. Hondakinak indarreko legeria aplikagarriaren arabera kudeatuko dira, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eskura egongo dira hondakinak behar bezala kudeatzen direla frogatzen duten egiaztagiria.

Aipatutako betekizunaren bat betetzen ez bada, kontratuaren zuzendariak hirugarren bati emango dio betebehar horiek egiteko ardura. Sortutako gastuak kontratatari deskontatuko zaizkio dagokion ziurtagirian.

8.10 KALITATEA ZIURTATZEA

Lizitatzailleak bere erakundeak kontratuaren kondizioak betetzeko gaitasuna duela ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001 2008 ziurtagiriarekin edo goragoko beste batekin bermatuko da.



Ziurtagiririk ez badu, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egokitzen jotzen dituen kontrolak onartuko ditu lizitatzailleak, eta haien kostua bere gain hartuko du.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

9. NEURKETAK ETA AURREKONTUA

Prezio unitarioak, neurketak eta aurrekontua egiteko, Presto programan egindako aurrekontuaren kopia bat eransten da, bai eta beste Excel orri bat ere. Inolaz ere ez dute kontratu-izaerarik, bakar-bakarrik kontratistak aurrekontua errazago egiteko aukera izan dezan entregatzen dira.

Kontratu-izaera duten prezioak administrazio-kondizioen agirian definituta daude.

Bilbo, 2024ko azaroa.

Javier Salvador
Automatizazioko

Montaos
arduraduna



ERANSKINEN ZERREDA

I. ERANSKINA.- GERNIKAKO HORNIKUNTZA-SISTEMAREN SISTEMA ELEKTRIKOA ETA KONTROL-SISTEMA BERRITZEKO PROIEKTUA (NEXT GENERATION)

II. ERANSKINA – ENPRESA KONTRATISTEK EGINDAKO LANETAN LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO PROZEDURA OROKORRA.

III. ERANSKINA – INGURUMENA